

XVIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaiak -Jose Antonio Pérez Gabarain mahaiburuak, Jose Inazio Basterretxea, Agustin Errotabehere, Mikel Irizar, Arantxa Urretabizkaia, Ana Urkiza, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak- aho batez adostu du ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; kazetariak urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen egitekoa.

Aurten 30 urte bete dira *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak “Gu gara euskal prentsa” aldarria plazaratu zutenetik. Euskara hutsezko hedabideen beharra azpimarratu zuten, hedabide askok elebitasunaren aldeko hautua egin zuten testuinguru hartan. Euskarazko hedabideen historian mugarriztat jotzen dugu aldarri hura. Ez zen, ordea, euskaraz bizitzeko mezuaren aldeko ekimen bakarra izan. Urte berean, *24 orduak euskaraz* izeneko festa egin zen Donostiako belodromoan, arrakasta handiz egin ere.

30 urteren buruan, hautu hura gogoan izan nahi du epaimahaiak, gauzak asko aldatu diren arren, euskararen aldeko aldarriak ez baitu gaurkotasunik galdu. Gogoratu baino ez dugu, esate baterako, Euskalerrria Irratiak bizi duen egoera Nafarroako Foru Erkidegoan. Azken Erabaki honetan, ez dugu aipatu

gabe laga nahi, Euskalerrria Irratiaren jazarpena, Nafarroako entzulego euskaldunari euskarazko irratigintza eskaintzeagatik.

Kazetari Berriaren atalarekin helduko diogu sari banaketari. Zailtasunak sumatu ditu epaimahaiak gazteengan lanak aurkezteko unean. Azken urteotan behera egin du sariketara beren burua aurkeztu duten gazteen kopuruak. Benetako kezka sortu digu horrek. Gure deia luzatzen diegu kazetari gazteei beren lanak aurkezteko eta, nola ez, hedabideetako zuzendariei, lan aproposak eskain dakizkien gazteei. Profesioaren baitan oro har, eta gazteengan bereziki, pairatzen den azpi-kontratazioa eta argi arautu gabeko beka-sistema batzuk egon daitezke gazteen urrunketa horren baitan.

2.- Hauxe da epaimahai honen erabakia:

* **2.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Kategoria honetara aurkeztu diren hainbat hautagaik “todoterreno” izaera azpimarratu nahi izan dute beren hautagaitzetan, oro har, hori ona izanik ere, kasu batzuetan ez du kazetaritza-genero jakinetan sakontzen ahalbidetzea ez eta lanak biribiltzea ere. Sarituko den lanak,

ordea, espezializazioaren bideari heldu dio eta interesgarriagoa irizten dio epaimahaiak bide horri.

- Bere espezialitateari dagozkion datu teknikoak ematen baditu ere, beste disziplina batzuetako erreferentzia gurutzatuak eransten dizkio autoreak bere lanari; espezializazioak izan litzakeen muga eta ertz zorrotzak lausotuz eta irakurlego zabalago bati eskainiz lana.
- Bere erreportajeetan, genero ezberdinen uztarketa interesgarria egiten du autoreak.
- Konnotazioaren jokia aberatsa da lan askotan, eta kontrastearen erabilera gustagarria gertatzen da.
- Sendotasun profesionala ikusten zaio, irakurlearen interesa pizten asmatzen baitu.
- Idazkera naturala du, zuzena eta adierazkorra.

+ *Sariduna*: **Ekaitz Agirre Intxausti** jauna.

+ *Saritutako lana*: 2005eko ekainetik 2006ko maiatzera bitartean Berria egunkarian mendiari buruz argitaratutako lanak.

* **2.2.- XVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Epaimahaiaren Sari Berezia”**, diplomaz, eta 4.000,- euroz hornitutakoa. Honen bitartez saritzen da Epaimahaiak bereziki azpimarratu nahi duen irizpide bat, kasu honetan, kazetaritza espezialduaren goren maila lortu izana.

Ondorengo lanak aitorpena merezi duela irizten du epaimahaiak, ondorengo arrazoiengatik:

- Euskarri ezberdinen bitartez gai beraren lanketa osagarria lortzen da.
- Produktuekin komunikazioa egiten asmatzen dute, eta baita produktuen komunikazioa ongi bideratzen ere.
- Gai unibertsalak etxera ekartzen dituzte, zientzia gaien popularizazioan sakonduz.
- Eskola egiten ari dira, estilo propioa sortuz.
- Proiektu sendoaren aurrean gaude, lan talde helduaren aurrean.
- Txundigarria da gordina den informazioari nola ematen zaion irakurketa humanoa.
- Lan orijinala da, beste inork egiten ez duen moldean egina.

+ *Epaimahaiaren Sari Bereziaren jasolea: **Elhuyar Fundazioko Zientziaren Komunikazio arloko profesionalen lan taldea.***

+ *Aipatutako lana: 2005eko ekainetik 2006ko maiatzera euskarri ezberdinetan-Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkarian, Teknopolis telebista saioan eta Norteko Ferrokarrila irratsaioan- kaleratutako lanak.*

* **2.3.- XVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Sari Nagusia”**, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Bikaintasuna eguneroko informazioari lotutako kazetaritza-moldeen bitartez lortzen da.
- Egokiera informatibo bereziari lotuta, heldutasuna lortu du kazetariak: elkarrizketetan sendo, erreportajeetan argi, iritzi formatoan zorrotz eta zintzotasunez jokatuz.
- Genero bakoitzaren funtzioa ongi harrapatua du. Lan osoa egin izana aitortzen zaio, erregistro ezberdinak bikain erabiliz. Aipagarria da nola asmatu duen bere bloga erabiltzen paper euskarriko lanaren osagarri.
- Hizkuntza jaso, ulertterraza eta orekatua darabil.

+ *Sariduna:* **Imanol Murua Uria jauna.**

+ *Saritutako lana:* 2005eko ekainetik 2006ko maiatzera Berria egunkarian, paperezko euskarrian zein Mahai Jokoan izeneko blogean, egindako lanak.

3.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian. Ohorezko Aipamena norabide ezberdinetan erabili izan du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ibilbidean zehar garaian garaiko epaimahaiak. Batzuetan, bizi osoan euskarazko kazetaritzan egindako ibilbidea saritzeko; besteetan, oso gauza ohargarriak azpimarratzeko.

Aurtengo sarituaren merezimenduak hauek dira:

- Sarituak eskola sortu du, bere arrastoa utzi du. Irratitik abiatuta, telebistan ere eredugarria gertatu da.

- Ekarpen handiak egin ditu, hiztegia finkatzen, tradizioaren eta modernitatearen arteko zubia egiten.
- Eguraldiarekin loturiko informazioa, kazetaritza genero bihurtu du, sinesgarritasuna eman dio, atala zena genero duin bihurtuz.
- Egindako teorizazio lana azpimarragarria da.
- Egindakoa lan duina da, bikaina, aberatsa.
- Komunikazio eredu bizia sortu du, herritarren parte-hartzea sustatzen duena. Hurbiltasuna lortzen du mezua egokituz entzulegoari. Azalpena bizitasunarekin lotzen da, hitz jario gozoaz apaindurik.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena **Pello Zabala** jaunarentzat da.

 Honaino, bada, *XVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta seiko uztailaren batean.

José Antonio Pérez Gabarain

Jose Inazio Basterretxea

Agustin Errotabehere

Arantxa Urretabizkaia

Mikel Irizar

Ana Urkiza

Nekane Goikoetxea